

# Dena bizitza berean



UXUE APAOLAZA LARREA

**B**eharbada, udan erlaxatzeko aukera izan duzue, hondartzara joan zarete, Pirinioetara furgonetan, parranda egin duzue (eta egiten utzi dizuete), edo gutxienez, bizitza arinagoa izan da urtaro beroenean, ez dakit, lan karga urriagoa izan duzuelako, esaterako, edo, besterik gabe, arropa gutxiago jantzi behar delako. Tira, ba nik erretxinduta jarraitu dut, bai behintzat ni naizenaren ehuneko esanguratsu batek. Uztailean, beraz, ez nengoen umorez Confedebaskeko lehendakari berriaren ateraldiak baretasunez hartzeko. Lerroburua irakurri orduko emaileko zirriborroetan “ez ahaztu” mezuan gorde nuen linka (inoiz ez ahaztea da amorruari eusteko nire mailako erretxinek egiten duguna): “Langileek egokitu egin behar dute erosteko ahalmena ez galtzeko eskaera”.

Tabernan, lagunartean, jendeak badu joera bere baina pobrea-  
goek gehiegi gastatzen dutela sentitzeko; auto markak aipatzen dira, telefono mugikorrenak, lan gutxiegi egingo dute bestela... Isabel Bustori ere gertatzen zaio, antza. Zertarako joan nahi du langileak oporretara? Noraino, hondartzak etxean edukita? Oliba oliorik behar al du langile batek? Dentistara joateko eskubidea? Eta dentistara joan nahi badu, ezin al dio hilabete batzuek hainbeste kafe hartzeari utzi? Egiten dituen gastuak ikusita, mesede ere bada gutxiago erosi ahal izatea, osasungarriagoa, adibidez, jakiak egos ditzagun, frijitu beharrean, haragi gorri gutxiago jan dezagun.

Sistema honentzat ez da jasagarria eskatzen dugun bizi maila. Ez gara jasagarriak. Jasanezinak gara. Dena nahi dugu bizitza berean, eta batzuk, agian, gaur egungo bizitza honetara duintzera baino ez gara etorri (lanaren bidez). Probatu dira langileak lanera dohainik joaten diren sistemak. Proba dezakegu berriro, jar dezala enpresak langileen mantenturako departamentu bat, eros dezatela gure partez, aukera dezatela asteburuan merkataritza-gune batean ikusiko dugun filma ere. Irudimen gutxi daukagu bestela ere, erosi gabe bizitzen ez badakigu. Are gehiago, zergatik gureari bizitza deitu? Gaizkiulertuak sortzen ditu horrek. Lan-talde bat sor dezake Confedebaskek horretarako ere, langileon existentziari beste izen bat jartzeko. Ea horrela zalantzak argitzen zaizkigun. ●



## Migrazioa

Hamabi pertsona migratzailearen aurkako polizia operazioa salatzeke protesta egin dute Urruñan. Abuztuaren 27an 300 bat lagun elkarretaratu dira, eta salatu dute aurreko egunean San Bixintxo elizan aterpetuta zeuden hamabi lagun atxilotu izana Poliziak.

## Lehortea

Krisi egoeran dago Ipar Euskal Herria ur faltagatik. Lehorteari aurre egiteko neurriak zorrotz dituzte 95 herritan, hala nola baratzeak ureztatzeke ordutegiak murriztea eta iturriak ixtea. Uraren erabilera arduratsuen aldeko mezua zabaldu du Pirinio Atlantikoen departamenduak.

## Ekonomia

Pilar Irigoienek kargugabetzeak itzal ugari utzi ditu Sodena-CEN COVID akordioaz. Irigoien Sodena enpresa publikoko zuzendari nagusia zen, eta Nafarroako Gobernuak kargutik kendu du, 2020an Sodenak Nafarroako Enpresarien Konfederazioarekin (CEN) bideratutako akordioa tartean.